



21. PREMIOS

MANUEL LABORDE WERLINDEN

21. SARIAK

“EKIMEN BERRITZAILE BERRIAK”

**“GRADU AMAIERAKO PROIEKTUAK,
MASTERRA ETA DOKTORE TESIAK”**

OINARRIAK

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



**BIC
GIPUZKOA**
UP! EUSKADI



“MANUEL LABORDE WERLINDEN” SARIAK

EHUko Gipuzkoako Campusak eta BIC GIPUZKOAK “MANUEL LABORDE” sarien 21. edizioa sustatzen dute, bien artean garatu eta kudeaturiko **ENTREPRENARI Programaren** helburua UPV/EHUko Gipuzkoako Campusean enpresa ekimenak eta enpresa berrien sorkuntza sustatzea, aholkatzea eta sostengatzea baita.

Sarien erakunde laguntzaileak honako hauek dira: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruneko saila, EUSKO JAURLARITZAREN Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen saileko Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzaitzaren zuzendaritza, SPRI eta DIARIO VASCO.

Sariak sustatu eta aintzatetsi nahi dituzten balioak **ekimen ekintzailea eta berrikuntza** dira, **berrikuntza zientifiko-teknologikoa** eta unibertsitate-ingurunean dagoen know-howtik abiatuta sor daitekeen **ezagutzari** arreta berezia emanez.

ENTREPRENARI Programaren filosofiari jarraituz, sormena eta berrikuntza zientifiko-teknologikoa eta ezagutza dakartzaten ekintzak dira bermatu nahi direnak, Euskal Herriko industri ehunaren modernizazioa bultzatuz, berrikuntzaren kultura hedatuz. Labor esanda, Unibertsitate ingurunetik abiatuta errealitatean isla daitezkeen asmo guztiei atea zabaltzea, enpresa izan litezkeen “asmo” guztiei bideak irekitzea da sariaren helburua.

Honako proiektu hauek hartuko dira berrizaitzat:

- ✓ Oinarri zientifiko-teknologikoa duten enpresa berriak.
- ✓ Ezagutza espezifikoan oinarrituriko enpresak, berriak diren sektoreetara zuzenduak.

Helburuak

1. Unibertsitatearen ingurunean ekintzaitza arloko ideiak eta proiektuak sustatu.
2. Unibertsitatearen potentzial berritzailea bultzatu, enpresa-ekimen berriak sortuz eta garatuz.
3. Ekimen berrien garapenean lagundu, baliabide ekonomikoak eta enpresak sortzeko eta kudeatzeko aholkularitza-serbitzu adituak jarritz.



Kategoria “Ekimen Berritzaile Berriak”

Norentzat

- ✓ UPV/EHUko irakasleak, ikertzaileak/lkerbasque.
- ✓ Euskal Herriko Unibertsitatean matrikulatutakoak edo haren titulu ofizial bat dutenak (lizentziatura, diplomatura, gradua, masterra eta tesia)
- ✓ UPV/EHUekin elkarlanean egindako ikerketa baten emaitzak ustiatzea erabakitzen duten enpresak.

Gipuzkoako lurralde historikoan enpresa-proiektuak garatzeko eta abian jartzeko asmoz.

Sariak

- ✓ UPV/EHUren **7.000 €**-ko ekarpena
- ✓ **60.000€**-rainoko ekarpena, BIC Gipuzkoaren bidez, ideia irabazlearen bideragarritasun, garapen eta abiarazte-azterlana egiteko.
- ✓ Doako sarbidea urtebetez “Joxe Mari Korta” Zentroan dagoen “Inkubagailu –” Entreprenari Gunean.
- ✓ Sariari dagokion garaikurra.

Oharrak:

60.000 €-rainoko dirulaguntza lortu ahal izango da, ideia irabazlearen berrikuntza- eta interes-mailaren arabera.

Irabazleak “Inkubagailua-Entreprenari Gunean” eskatu beharko du lekua, saria eman eta gehienez ere 18 hilabeteko epean. Espazioa erabilgarritasunaren arabera esleitu da.

Hautagaien balorazioa

Aurkeztutako proiektuak erakunde babesleek osatutako Epaimahai batek ebaluatuko ditu:

- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruneko saila
- ✓ SPRI
- ✓ UPV/EHUko Gipuzkoako Campusa
- ✓ BIC GIPUZKOA.

Hala badagokio, aurkeztutako proiektuen gai tematikoetan adituak direnak Epaimahaian sartzea baloratuko da.

Proiektu finalistek beren hautagaitza defendatu beharko dute Epaimahaiaren aurrean.



Jarraian aipatzen diren alderdiok hartuko dira kontuan bereziki:

- ✓ Ekimena sustatzen duen taldea.
- ✓ EHU-ren medioz ezagupen eskaintza.
- ✓ Produktu / Zerbitzu / Prozesuaren berrikuntza maila.
- ✓ Merkaturatzeko aukerak eta jarduera-sektorearen interesgarritasuna.

Dokumentazioa eta beste ohar batzuk

1. Laburpen exekutibo bat erantsiko da, gehienik ere bi orrialde dituen, proiektuaren balore nagusiak azpimarratuz.
2. Proiektuaren gaineko justifikazio-txostena, sariaren antolatzaileek ezarritako ereduaren arabera. Aurkeztu beharreko dokumentazioak, gehienez ere, 25 folio izan beharko ditu.
3. Ekimenaren sustatzaile/sustatzaileen Curriculum Vitae ere erantsiko da. Ikerketa talde batek sustatu eta bultzatutako proiektua izanez gero, talde horren ikerketa-ildo estrategikoei buruzko lapurpen xume bat aurkeztu beharko da.
4. Proiektua sustatzaile talde batek aurkezten duenean, beren ordezkari izango den pertsona fisiko bat hautatu behar dute, sarituak aukeratzeko prozesuari dagozkion ondorenetarako.
5. Sarien epaimahaiak informazioaren hedapena eskatuko du eta/edo egoki deritzon partaideekin elkarrizketa pertsonalak edukiko ditu.

Oharra: Proiektuaren memoria Sarien webgunean eskuragarri dagoen gidoiaren arabera egingo da. Aurkeztutako galdera guztiei erantzuteko heldze-maila nahikoa ez duten proiektuek informazio ziurra duten puntuak baino ez dituzte beteko



Kategoria "Gradu amaierako proiektuak, masterra eta doktore tesiak"

Norentzat

- ✓ **2019-2020** eta **2020-2021** ikasturteetan gradu amaierako proiektua, masterra edo doktore tesia aurkeztu duten ikasleak.
- ✓ Doktore tesia garatzen ari diren edo **2019-2020** eta **2020-2021** aldian aurkeztu duten ikertzaileak, proiektuak merkatuan dituen aukerak analizatzeko eta, hala bada, gauzatzeko asmoa dutenak.

Proiektuak indibidualak edo enpresarekin egindakoak izan daitezke, betiere enpresaren laguntza badute.

Sartzeko baldintzak

Ebaluatu beharreko proiektua UPV/EHUko fakultateetako eta Gipuzkoako Campuseko gradu-ikasketen barruan garatu izana, edo, bestela, fakultateetako edozein sailek emandako graduondoko ikasketen barruan (masterra edo doktoregoa).

Sariak

- ✓ UPV/EHUren **3.000 €**-ko zuzkidura eskudirutan, dirulaguntza eman eta hurrengo sei hilabeteetan aurrebideragarritasun-azterketa egiteko, kontzeptu hauetan:
 - Aholkularitza teknikoko/teknologikoko eta/edo prototipoko gastuak.
 - Ekimenaren aurrebideragarritasuna analizatzeko eta negozio-eredua zehazteko gastuak.Aurrebideragarritasun-azterketa egiten den bitartean, BIC Gipuzkoa azpiegitura operatiboa eta aholkularitza izango da.
- Aurrebideragarritasun-azterketa ontzat ematen bada, proiektuak aukera izango du 60.000€-rainoko ekarpena izateko BIC Gipuzkoaren bitartez, saritutako ideia bideragarritasun, garapen eta abiarazte-azterlana egiteko.
- ✓ Sariari dagokion garaikurra.

Hautagaien balorazioa

Aurkeztutako proiektuak erakunde babesleek osatutako Epaimahai batek ebaluatuko ditu:

- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruneko saila
- ✓ SPRI
- ✓ UPV/EHUko Gipuzkoako Campusa
- ✓ BIC GIPUZKOA.



Hala badagokio, aurkeztutako proiektuen gai tematikoetan adituak direnak Epaimahaiaren sartzeari baloratuko da.

Proiektu finalistek beren hautagaitza defendatu beharko dute Epaimahaiaren aurrean.

Alderdi hauek bereziki baloratuko dira:

- ✓ Planteatzen den produktuaren/zerbitzuaren berrikuntza-maila / aukera potentziala
- ✓ Proiektuaren kalitatea
- ✓ Ikaslearen profila eta ekiteko motibazio-maila
- ✓ Proiektua zuzentzen duten irakasleen iritzia
- ✓ Enpresaren babesa eta inplikazioa, enpresek planteatutako proiektuen kasuan

Dokumentazioa eta beste ohar batzuk

1. Laburpen exekutibo bat, gehienez bi orrialdekoa, parte-hartzaileak Sarietara aurkezteko dituen motibazioak azalduko dituen.
2. Proiektuaren justifikazio-memoria, honako hauek bilduko dituen:
 - Negozio-aukeraren deskribapena, aurkezten den ereduaren arabera*.
 - Aurkeztutako proiektuaren memoria.
3. Enpresarekin lankidetzan egindako proiektuen kasuan, aurkeztu beharreko dokumentuan enpresak proiektuarekiko duen jarrera azalduko da (interesa, lankidetzaren modalitatea).
4. Proiektua ebaluatzeko interesgarritzat jotzen den bestelako dokumentazioa.

Sarien epaimahaiak informazioa zabalteko eskatuko du eta/edo elkarrizketa pertsonalak izango ditu egoki irizten diren parte-hartzaileekin.

***Oharra:** Proiektuaren memoria Sarien webgunean eskuragarri dagoen gidoiaren arabera egingo da. Aurkeztutako galdera guztiei erantzuteko heldu-maila nahikoa ez duten proiektuek informazio zurrak duten puntuak baino ez dituzte beteko*



Hautagaitzak aurkezteko epea

Hautagaitzak aurkezteko epea **urriaren 29an amaituko da, 12:00etan**

Hautagaitzak **www.entreprenari.com** bidez erregistratuko dira.

Hautagaiek erregistratzeko unean aukeratuko dute kategoria.

Sariari buruzko kontsultak hemen egin daitezke:

ENTREPRENARI GUNEA - BIC gela

Joxe Mari Korta zentroa

Tolosa hiribidea, 72, 0 solairua

20018 Donostia

Harremanetarako pertsona: Karmele Arozena

☎ 943 015 473 / 616967237

entreprenari@entreprenari.com – karmele@bicgipuzkoa.eus

GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA

Arriola pasealekua, 2 (Julianategi)

20018 Donostia

Harremanetarako pertsona: Aimar Insausti aimar.insausti@ehu.eus

Oharrak:

Epaimahaikideek konfidentzialtasun osoz tratatuko dituzte aurkeztutako proiektuak.

Epaimahaia ez da izango aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasunaren erantzule, eta, hala badagokio, ahalmena izango du beharrezko ekintzak baliatzeko, baldin eta Saria dela-eta hirugarrenen aurrean iruzurrik edo/eta ondorerik ondorioztatzen bada.

Hedabideei dagokienez, parte-hartzaileek proiektuaren izenburu orokorra eta hura gidatu duten sustatzaileen izena zabaltzeko konpromisoa baino ez dute hartzen. Proiektu finalisten kasuan, beti izan baitezakete hedabideen aldetik informazio-estaldura handiagoa, horietako bakoitzarekin modu pertsonalizatuan tratatuko da aurrez aipatutakotik kanpo argitara eman nahi duten informazio-maila.